BAGILLA-JUNIO
24
Igandea - Domingo
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 Irko. Iru ile.
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.721 zenbakija

Egunekua

Ezpaya

Cataluñatarен auzija bide zala, Bilbao'ko "El Pueblo Vasco" izpariñgi bakanak idatzi dauzan ganorabakokerijetatik sortu zan ezpaya, amatubaz duala dirudi.

Baztarak gustijak iruntzi biarian artalderatu zan otsua, ardi otzan biguftuten asi dala dirudi, ba.

Ledesma txaideko otsuak, oturea daun lez, bere agin zofotzen zuritasunera, euzko-ardi otzanak bere oñetan etzunda geratuko zirala uste eban, eta okeréko uste ori buruban ebala artalderatu zan.

Artalderatu, ta egin zofotzak erakusten asi...

Euzko-ardijak, baña, aren agiñak gora -bera, euren barutiik igitu be etziran egin, otso-agin zofotza ieuzko-ukubil gogoraerakutsijaz, bertan geratu baño.

Euzko-artalde otzana odol-uztu ta atzeri -otso gosetijen janari biguftuko ebela uste ixan eban Ledesma-txaideko otso zitalari, euzko-artaldetik euzko-artzain bulaftsubak urten eutsan, ba, ta eskubetan eroyan artzain-makila senduaz agiñetan jo, ta etxera bidian imiñi.

Euzko-artalderatu dan Ledesma txaideko otso gosetijori, irakurle, Bilbao'n, euzkotafon lotsagarirako, "El Pueblo Vasco" (?) ixenaz argiftaltzen dan egunerokua da.

Euzko - artaldetik, eskubetako artzain -makileaz agiñetako galanta emonda etxera begira imiñi daun euzko-artzaña, bariz, Correo txaidian argiftaltzen dan EUZKADI izpafingija.

Ledesma txaideko otso maltzurak, ondiño be, baña, euzko-artzañak eskubetako artzain-makileaz agiñik geyenak lokatuta laga daun aren be, zaunka batzuk egiten dauz.

Zaunka bakarik, baña, lenengoz artalderatu zanian erakusten euzan agin zofotzak erakusteko, agin sendo bat abuan eztaukala geratu da-ta.

¡A gixagaxua! Ardirik otzanenak baño be otzan antz aundijagua aftzen asita dago orain!

Eta bai biar be, bestelan gure aftaldeko artzañak barijen-bari agiñetaratuko leuskijon makiladeak, osuan lokatuta geratu yakazan agin banakeak be, kenduta imiñiko leuke-ta.

Iñoren barutira agiñak erakusten saftziak dakarzan ondorenak dituk oreik, otsoto.

Ederak eta bost aftu dozak, baña iñorenari, geidiak bere-beriak yuazan eskubidiei ik aftu oi-deutsekan baño lotsa geitxubago aftzen ikasten ezpa-dok, ikasi, ondiño obarik aftu biarko dok.

Otsoto, areik beñola eure agin zofotzen jolasgari or-emen sakabanatuta ta artzain barik, jabola edo aldezle barik idoroten uazan aldi zoragarijak, amatu zuazan; eta iretzat, antza dagonez, betiko amatu be. Eta lasteř, bariz, ondiño be zaunka ta zaunka dagitsekazan ardijok, zaunka egiten be ezteue lagako, euzkotafontzat bakarik azkatuko dan lufalde onetatik, euk ain mate dokazan Padroluengo inguru biraetako oyanetarantz jauftiko aube-ta.

Ibili ta ibili, otsoto, eure sarija irabaziko dok, ba: txarto dabilanaren sarija...

Orain, be, cataluñatarен auzijan sartu ezpa-intz, ezpai onetatik atara dokan sariik ezuan atarako: gauf agiñak apurtu barik ixango uazan beintzat...

Doniañe

Gauf Doniane eguna da.

Eta egun onek, ene basetxe zarera begira imiñi nau, ta atiita zarak etafteko orma-eftzian taket makuto bataz ormeari josita imiñi daun lexarki gurutza edera ikusten.

Lexarki adar aundijari gurutzea imindeko edegi dautsan irikilian, soluan idoro daun arto-landararik gurijena ta mardulena imiñi dautsa, bata gari-soluan idoro al ixan daun galbururik zinduena ta aundijena be.

Solo-munetara begiratubaz, aureko ilunabarian euretan egin ziran Doniane-subak laga eben su-lofatzak dakustaz. Soluak-ziar begiratubaz, bariz, Abar-igandez eriko eftxadonan onetsi ziran gurutzatxu begikuak.

Gogoramen zoragarijok, ume biguftu nabe, ta atiita zarären abotsa entzuten imiñi.

Doniane goxeko iñuntza gotzonen abo -adura da—atiita zarak esan dau—, ta iñuntz onetsi oregaz oin ortosak bustiten dauzanak, urte osoko osasuna irabaziko dau.

Doniane goxian ituritik lenengo ura edaten daunak, be, ur onetsija edango dau —darai atiita zarak.

Eta doniane goxeko iñuntzetan oin ortosak bustiten diñardut... Ituritik pil-pilka jausten dan Doniane goxaldeko ur onetsija edaten... ¡Au amesaren zoragarija!

Gauf Doniane eguna da irakurle.

URIBITARTE'TAR IBON.

Goizparki - Atzalpenak

Etorkunde - osteko V igandia

GOIZPARKIJA

Aldiatan, Josu'k bere ikasliai onan esan leutsen: Zuben zuzen-egiña idazkari ta parixetarena baño joritsubagua ez ixatekotan, gu-ala-baru sartuko etzarae. Ez erail iñorbat, iñorbat erailgo leukena auzitegijan epai-erudun ixango da, anbijolakuai esan yakela entzun dozube. Nik, bariz, bere anayari aseretuko litxakikiana epai-erudun ixango dala dirautzubet. Eta anayari "gangar" eretxiko (detuko) leuskiana, batzar-erudun ixango da; "zantar" eretxiko leuskiana, bariz, su-basteř-erudun ixango da. Oregatik, eure oparija oindi -ganian (aldaran) opaltzerakuan, ire anayak ezertxubat eure aurka yaukeala antxe gomutako ba'intzake, eure oparija bertan, oindi-ganian, itxiita, uake lenago ire anayagaz onezkuak egiten; eta gero, etori ta eure oparija eskeinkek. (Matai, 5, 20-24).

ATZALPENAK

JAKINGARIJAK.—Goizpar ontan atatuten diran idazkari ta parixetaretzaz zerzait esan daigun. Idazkarijak lagi-jakitunak ziran, eta lagija erijari azaltzia zan euren egikixun gurena. Parixetarak, bariz, alako bazkun edo gixabatz bedegara egiten leben, eta jauntzale ta lagi-betatzalerik onentzat erakusten lebezan euren burubak. Orezkero, idazkarijak, bai parixetarak, judar lagunabaren artian ospe ta dedu aundikuak zirala esan biarik eztogu.

Batzuk ziran, bariz, azal-guzurak eta Josu-Kisto'ren etsairik amoratubenak. Lagija azalez bakarik betatu, ta aren mamiña euren eritxi ta ekandu zarakaz ordeztuten leben; eta Josu-Kisto gure Jauna gurutzan josita ikusi-arte eleben bakerik euki. Josu-Kisto'k, bariz, amaika bider azaldu leuzan arein guzur ta amarukerijak Oinguan, be, boskaren aginduba aipidetzat artuta, areik lez azalez bakarik barik, azal -eta mamin betatu biar dala darakusku.

Gixeralia epategira eruaten leben judarak; eta oben larijagua, jaungixunkerija -edo, jakiten lebana, batzarera. Batzar nagusi oni "Sanhedrin" leretxon, eta 72 epaikarik osotuten leben. Su-basterа, Jerusalen'go saskeri gustijak ereten ziran zeiaya zan; gaiztokijaren irudija ixan, be.

BOSKAREN AGINDUBA.—¿Zertzuk gebentzen dauskuz a) Eskubide-baga geidia erail, zauritu ta jotia; eta bardin, buru-iltia, be. g) Geidiaren kaltezko aserekeri, gofoto, iñartzi, asperkunde, irain, añen eta a. k) Iñori gaizpidia emotla.

¿Zetara biartzen gauz? Boskaren agindu-arauz biarkixunok doguz: a) Geidiakin gentzaz edo baketsu bixi; g) Irañak-eta bijotzez azketsi; k) Geide gustijak matatu, ta eurei al dogun bestian on-egin.

Idazkari ta parixetarak gofotua ta baruko beste obenak aintzat elebezan artzen; Josu - Kisto'k, bariz, agindubak osorik, azal-eta-mamin, betatu biar dirala irakatsi dausku. Ostantzian ezkara donokira saftuko.

ASEREKERIJA. — Aserta, geidiaren kaltez barik, obenaren edo txarto egiñaren kaltez baño eztanian, ona da; geidiaren beraren kaltez danian, bariz, obena da, ta aserekerija deretxo.

Aserekerijak, larija danian, ondore negargarijok eratorten dauz: a) norbere bijotza oben aztunez lotu; g) geidiekiko bes te oben asko eragin, irain, anen, buruka, ta a.; k) norbere adimena ilundu ta buruba gofotogari egin.

Aserekeri aztuna, irain laritzat esten diran itzak geidiari zuzendu-erazo egin daruana, batez be, ardura aundiz egotzi biar da bijotzetik. Berez suminkor edo aserekorа danak, sumimena ezi ta ondo eraenduteko, alegiñak-alegin begikez, ta saritxu Josu'ren nekaldi-erijotzak gogoraturik, Urtzi Jaunari bere laguntzea eskatu otoi-ta-aren.

Ostantzian, sumimenak erazota, erez jaukiko dauz geidiaren kaltez itzezko oben larijak, eta bere buruba zigor - erudun egingo, Josu-Kisto gure Jaunak dirauskunetz. Otzan eta jasankorak ixan gatezan. Josu bera letxe.

ONEZKUAK EGIN BIARA.— Gure geidiagaz asere irautiak iguin emoten dautsala, ta len-bai-len onezkuak egin biar doguzala, dirakasku gure Jaunak. ¿Noiz gagoz, bariz, oretara biartuta? Iraingiñak geu ixan garanian, batez be. Geidiak irandu gauzanian, beroni dagokijo lenen onezkuak egiten alegindutia; baña, orduban be, likañago ta oba dogu geu auferatu.

Onezkuak egin nai eztauzanak eztau geidia mate; eta Jaunak, be, eztauz olanguaren otoi ta oparijak aintzat artuko. Josu-Kisto'ren irakaskixuna da: geidiari egiten dautsoguna berari egiten dautsagula. Orezkero, geidiari egin nai eztautsoguna, be, Jaunari berari eztautsagu egin nai.

Onezkuak zelan egin: a) ainbat lasteren, Josu-Kisto'k argi ta garbi dirauskunetz; g) zintzoro ta bijotz-bijotzez, Jaunak gure barena ziero dakus-ta; k) iraunkiro, ostera ez irainduteko asmoz; y) iraña ixan dan giñoko atsegin - ordaña emonik.

¡Tamalgarija da, kistaren artian, be, ainbeste aserekeri ta sumiñaldi ixatia!

NA.

MURELAGA (AULESTIA)

EUZKEL-IXENA.—Urizar'tar Gotzon eta Aranburu'tar Pele senar-emazte abertzaliak seme bategaz getu dabe euren sendija, eta guraso euzko abertzalien egin biara dan legez ugutzan Gotzon euzkel ixen begikua ipiñi. Ata-ama bitxijak Zuazo'tar Karmeilda ta Urizar'tar Anastase abertzale gastiak ixan ziran. Zorijonak gustijoi.

DABILTZANAK. — Igandian emen agurtu geban "Endaitz" euzkel-idazle eta olerkari azkara.

Emen aukitiuten dira Gazteiz'ko ikastetxetik etoriita opoaldia igaroten Urkidi 'tar Luke eta Jone irakaslegei eta emakume abertzale zintzuak.

MIXIO JAYA.—Iragariita eguan legez igasi zan igandian ospatu zan eri onetan mixio jayo deritxon eleiz jaya, gustizko eleizkixun aundijagaz txaiderik txaideko ikuskariko ibildeun eta itzaldijakaz jaupa nagusitako itzaldia Ata Ugutz karmeldarak egin eban eta aratsaldeko eleizkixunekua Oar-Arteta'tar Joseba Andoni jaunak, bijok itzaldi laburtxubak baña argi eta sutsubak egin ebezan, geu beintzat poz -pozik egongo gintzazan luzeruago be eurari entzuten.

Aratsaldeko eleizkixuna amatu ondoren Txao deritxon mixio antzerkija antzeztu eben bertoko antzezlarijak ostetza aundija eldu zan ikustera eta gustiz txalotubak ixan ziran antzezlarijok.

GANURKULU.

UBIDEA

JON DEUN JAYEK.—Iñozko pozaz gagoz itxadoten gure zaindari aundija dan Jon Deun Ugutzaliaren jai ospetzubak igaroteko eriitar gustijak.

Oidana lez, or-zier zakabanututa diren eriitar zintzuek, be, aspaldijen diñardube gertetan urteoroko egun onek geure artien alatasunez igaroteko, ¡bai aranotan! iñok utzik egin barik; eta belaunik-belaun, oturea jatatubaz, txairo erduko dire bakotxa bere sendijetara.

Ona emen euron zertzelada batzuk.

ETORI TA AGUR.—Aundikiro, aureguez, eradak-eradijak, ereka-munan gure andera zintzuok garoitzen dabezan bitartian, erduko dira batetik bestetik ainbeste eriitar, zuzendurik txadonara, berton abesturik Agur erikoya.

AZKARIJA ETA SAN JUAN SUBAK. — Oiura zara jatatubaz, Udalak emongo dau ardau goxotxuba edan-alde eriko auzo gustijai anatasun agiritzat, bada emen orixe da agiri berezikua.

Gero erijaren ixenian, Udaletxien, agindari-aurian, batek egiten dau "urteijerie", esaten dautzien antxiñako jantza bijora.

Udal-aureko zelayen, gastiek, be, bai aurresku bijor bat, jantza ariñek, neska -mutilok. Amatuteko auregun jayok-aspaldijen baturik daukiezan egur, elori, nar txortai sei-erdijan suba emon, da abestu gogotsu "San Juan de Portaletaña" ingurutxo antzera, tanbolin-otsien.

LORA BATZEN. — Argi kanpayan otsian, Jon Deun egunien ixartuko da eri ja, ta or yuatzuz neskatil lirañok solorik -solo, erekaik ereka sauku-lora, anitz-be dar da usain mota askodun lorak batzen eta morozkuek barez, elexar adarak etxe atetan ipiñiten, abesti gozotan, iñontz osasunkorak batuaz, uju ta lekayo, zeruko zatibaten antza emoten dautziela erijai; lorok opaldu zaindarijari, eta etxe-inguruok apain-apain agiri diralarik, geu iker tuten datozan erbestetarei matazunezko txeria damotzula.

AURESKUE, JOLASAK ETA ABAR. Ondorik, ixengo da aurresku zara, bijor eta txairo, beti-lez, Axuriatarен zelayen, agintarijek, neskatilak, zaldunek eta jauparijek Udaleko txeiguen dirala, zu-zirizka-ke-artien txalo - txaloka eriitarak. ¿Zer gauza ederagorik? Dana antxiñeko erara.

Gero jolasa ta jantzie, tanbolin-soñuan, gureñe, izterak mindu-arte, zar ta gaste, ba Ubide'n egun oretan, aguretxuek be yantzan egiten dabe, neskazarak be, bai, eta atsotxubek be ba... da zegatik ez. ¡Ar ano zara!

IL OTOIKETAK.—San Juan Bijamonez, oiura gustiz zara dan eran, ixango da baie urtien il-diren Ubidetar oroen aldezko elizkixun matekora; etorten dira ona be. Ipiña'tik, Aramayona'tik, Zigoitia'tik, Otxandiano'tik, elizkixun ospetsuonetara, ba senide, lagun edo adiskide, danok daukogu artuemontxuba geure lagun ixen direnakaz.

ETORI BAT.—Gu gertu gauz emen danori txera ona eiteko, aurten, berariz, gari, arto, babarun bedar eta abar ugeri dator; alan ixenik, eriitar eta albo-eriitar, ¡etori danok! Jon Deuna aintzaldu eta egun on batzuek igaroten. ¡Etori, ba!

GOXALDE.

MAÑARIA

BEDERATZIURENA.— Josu'ren Bijotz gozoaren bederatziurena egubaztenian asi zan. Eta abestijakaz ta abar elizkixun berezijak egiten dira.

BERMEO'RA.—Igandez Bermeo'n ospatu zan euzko-jaira emetik be lagun mordo galanta juan zan. Eta gustijak zer kontau askogaz pozez-pozez etxeratu ziran.

JUAN-ETORIJAK. — Lengo larunbatian egon ziran emen "Zeartu" basetxera kerexak jaten etoriita Aregi'tar Koldobika aberkide zintzua ta beronen emaztia dan Zubia'tar Aintzane izlari trebia ta beste emakume batzuk.

—Zaldibar'tik etori zan Untzalu'tar Miren anderea.

—Bilbao'tik, Akosta'tar Eraul bere emazte ta semiakaz.

—Urkiola'ra osteria astelenian egon ziran emen Goikoetxea'tar Andoni ta Azketa'tar Bitor abade jaunak.

LUGIÑAK.—Artoak joratzen eta kerexak batu ta saltzen zeregiñik askogaz dabiltz.

EGURALDIJA. — Aldijari jagokanez eder-edera. Ontxe euri ta ontxe eguzki, solo-baratzak bitsetan dagoz.

MAÑARIKO.

Agirre'tar Domeka'ri omena

TXISTULARIJAI DEYA

Agire'tar Domeka zanaren omenez ila onen 29'an, Kepa-Deuna'ren egunez egingo diran jayetarako txistularijen sayo bat imiñi gura dau batorde onek.

Oretarako dei-dagitse erdu gura-daben txistulari gustijei euren ixenak emon dagijezala. Ondaroa'ko Udalera bidaldu biarko dira ixenak.

Baldintzak: 25 laurleko txistulari bakotxarentzat eta lenengo erduten diran ogetabostak ixango dira onartubak.

Gai onetzaz, txistulari-batza jakintun da!

Batzordia.

MUXIKA

IKASLE AZKARA. — "Elgezabal" etxeko Itza'tar Bitor, irakaslari-ikastijetan (urte bikuak urte baten) garale urtenda etxeratu yaku, igez lez aurten be. Zorijona eta jaratu azkara baxen zitzua ixaten orain arte lez.

EUZKEL-IXENA.—Barandika'tar Polentzi eta Miren Guruzne senar-emazte Jeltzale zintzuak seme eder bategaz getu dabe euren sendija, eta ugutzaldijan Imanol euzkel-ixen bikaña ezari be. Ixenari dagokijon lako Jeltzale euzkeldun zintzua ixaten irakatsiko dautsozula esan biarik eztogun-ezkero, zorijonak dopaltzubeguz guraso zintzuoi eta zubekandik ikasi begije euzkotar guraso gustijak euren seme -alabai euzkel-ixenak ezari eta... euzkeraz ondo irakasten.

Euzkeraz eztakijen
Euzkel-ixendunak,
Dirudije... tamalez...
Min bako aranak.

Jazokun oneik, ba!
Saritxu dakusguz,
Eta ¿zegatik ori?...
—Gurasoen eruz.

¿Urijetan umei
Euzkera irakasten,
Uste dan baxen erez
Eztala ixaten?...

Ori egija dala
Esan legi nun nai;
Baña, egiz nai daunak...
Eingo daula be bai.

DABILTZANAK.—Bilbao'tik etoriita emen agurtu doguz, Artabe saloskari ezagunaren sendija eta Larragan'dar Josune anderañua; "Cabo Santo Tome,,'tik etoriita Ibarguengoitia'tar Martin; Lexona'ko Sardui'tar Jone eta Ixaka, senar-emaztiak, Sardui'tar Gotzon eta Zendagorta'tar Julene'n seme jayoparija besoetan artzen etoriita. Ondo-etorija eta zorijonak danori.

BASERITAR PILOSOPUA.—Astelenez Gernika'ra osteratxu bat egin biar ebala-ta, "Goenetxe,,'ko Anton'ek "tertijoztxu" bazkarija gertu egijola esan eutson emaztiari; onek gerteurrikua jan ondoren Gernika'ratu zan gure Anton zintzua, eta beste zeregin batzuk eginda gero, abere-azokan salgai ziran txal batzuri begira jari zaneko, saltzalia asi yakon esaten, txal ona ta merkia gura baeban, zekulako aukeria orduantxe ebala. Eskarija erain eutson, ba, ontañez antzeko saltzale ari. Anton'ek txalik ezeban biar, Korta gustija beterik eban ba-ta; baña zeozer agindu barik ez iztiaren eskaturikoen erdija argindu eutson. Saltzaliak asare antzera ¡ori ezta erazoya!—esan eutson. Anton'ek baña, ben-ben jardetsi eutson: "Niria erazoya ezpada, beste batena artu" eta geyago emongo eutson antzik artu ez eutsonian... eruaxu, ba, debalde da baña, esan da... berbatik eldu eutson Anton'i. Onek euzkeldun itza ez ukatziaren, biar ez ebala be, artu ta etxerantz etorala, bidian aurkitu eban dana jakin-gurako sasi-letreu batek dirautso:

—Kaxio Anton, txala dakak edera; ¿zenbat dok ori?

—Au bat, zofotz-zofotz esan da aufera dua gure Anton.

—Ori bayakiat ik esan barik be; ¿ordaindu zenbat egin dok bar?

Epian erozi. Ondiño be sasi-letreuori len lez geratzen zan eta txalen saneurija zelan edo alan atara eragin gurarik dirautso bariro be:

¡Tiretxu andija euko eban gauf txalak!

—Au berau tireka andi barik datof arayuak ezpatuk.

Anton aurera txalaz...
Geratu be bariik
"Sasi-letreua" geldi...
Len letxe... baraurik.

Itaunlari maltzurei
Zetara erantzun
Anton "pilosopuak"
Erakutsi euskun.

E.'TAR K.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros 5, 3.º, DONOSTIA

Jesús Ostolaza
BERGARA
FABRICA DE INSIGNIAS
DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO
IKURRIÑEN OLEA

ARRIETA - BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777

Errijetatik

SEGURA

UDAL-BATZARA.—Igandean egin zuan gure Udalak bere batzara, orilean zerga edo deretxotan bildu dana 1.738,94 laurteko ontzat eman eta Zegama'ko Asegurolaza jaunari indararena 374,35 aurleko ordaintzea ontzat emanaz. Ondoren "Kolonia eskolar,,'ek emen daukan etxera datoren ilean ume gexoak etortzeko zuru -murua dagola-ta zer gexo diran edo osasun batzordeak jakitea ondo izango litzakela, erabaki zan. Baita ere irakuri zan Euzko-Nekazarien bazkunak Zumaraga'n artu zituen erabakiak beritzen zituen idazki edo eskrito bat, gogoan artu-ta al zana egiten sayatuko zala erabakiaz. Idazki edo eskrito ori zala-ta, bereala eri bideak beritzen astea erabaki zan, Ituriberi'ko ta Armaola'ko zubietatik asita. Baita ere, abere-sariketa edo ganaduen premio batzuek Aldundiari laguntza eskatuaz gertatu oteeizken ikustekoan gelditu ziran.

ru bildu dan eskatuaz, eta iritzi batez erabaki zan guziak bat eginda dauzkagun eskubide apuren alde gogor egin bear zala. Iritzi onixe elduta, abertzaleak eskatu zuten, Katalandarai zorionak bialtzea, euren eskubidien alde gogor agertu ziralako, baña Zafontzaleak ikusixego arte etzijotzela ezertara-ta, artan gelditu zan.

Baita ere abertzaleak gogorazi zuten, Batzokiak nola bere Pospolin eta dantzariak Jon Deunaren jayetarako edo San Juanetarako eskeñi zituen eta erantzun zitzayen Azpeitia edo Azkoitia'ko Zirkulokoak ere dantzariak eskeñi zituztela-ta nola politika zan ez batari eta ez besteari uztea edo... Abertzaleak erantzun zien gure dantzak ez daukatela politikarik eta egokiena guziak dantzatzea litzakela Jayen batzordeak edo "komision de festejos" 'ek erabakitzekoa gelditu ziran. Ezdakigu zer egingo duten.

Ondoren abertzaleak eskatu eta iritzi batez Leizaola'ri zorionak bialtzea erabaki-zan, aldundiko idazkaritzarako edo sekretariotzarako azterketa onak egin ondoren, batzordeak autu duelako. ¡Guk ere, zorionik sutsuenak damaskiogu!

AURTXOA DONOKIRO.— Agiretar Justa ta emazteak zeukaten urtebeteko aurtxoa Donoki edo zerura juan zaye.

Ondoren, Aldundiaren edo diputazioaren idazki bat irakuri zan, azkeneko urte austan ardo zerga edo deretxotan zenbat di- ¡Goyan dago!

URTE-JAYAK.—Larunbat onetan asita, igande eta astelen ospatuko ditugu gure urte jayak Jon deunaren omenez, dultzainero, txistulari, pelotari, aizkol-joku eta Txiringuslari edo ciclismo, Jaupa nagusi ospetsu bat bere izlariarekin guzien gain dala. Oraindik agerkai edo programarik ez dute agertu, baña zuru-murue erderaz bakarik aterako ote dituzten entzun det. Dirudinez iñor baño euskaltzaea go dirana aztu egingo zitzayen gure zarontzaleai.

OTARA.

OÑATE

Bare "franco" egin dogu Oñate alde onetan lengo asteartian "Constancia" irakurita: "Millares de tradicionalistas aclaman a nuestros oradores.—Ligeros incidentes promovidos por los despechados ante la grandiosidad y brillantez que revistieron todos los actos", eta beste orelako gauzaz bi orialde bete-bete eginda ekaren izparingi txepel orek.

Ez dabe asko biar poztuteko gixajuok. Guk uste genduan asare egongo zirala jende gutxi etori zalako, baña... ¡bai zera! danok pozik. Ez geban ostera peri- -egun baten baño asko jende geyago ikusi

Larunbat gabian apostu-gintzan giñan batzokian urengo egunian berogeita amar autobil aundi etori bayetz eta ezetz. Urengo egun oretan, aratsaldeko bostetan, juan giñan zenbatuten eri bastar gustietan egozenak, eta ogeitabost justo-justo. "En efecto, se llenó el frontón y gran parte del público hubo de quedarse en la plaza contigua, siguiendo desde allí el hilo de los discursos. Puede calcularse en diez, u once mil las personas allí reunidas." ¡Ja, ja, ja! Etxaok lotza aundirik Pi Margall kalian. Oraintxe ziñestuten dogu karlatar aldeردi au juan zala pikutara.

Oñate dan erija izanik karlista gudaketetako gomutakiz beterik, oreik egin dituen alegiñak eginda, alako jayak gertatuta, Nabara, Bizkaya, Gipuzkoa ta Araba ziar bi mila lagunetik bera batu... oren ondoren esan leikie: "Apaga y vámonos".

Baña "Constancia" onek azala zendua dauko. "Adveniat Regnun Tuum" oriburuan eta ondoren ainbeste "frescura", ez dakit barегarija edo negargarija dan. Nork ikusi ete zituan Oñate'ko pelota-lekuan orenbeste jende eta ainbeste gauza. Munain'go mayorazgua be antxe egoan izlarien onduan eta a ete-zan, ba?

Itzaldiok be, lo-guria emoteko modukuak. Araudija jainko bakua dala; abertzaliok masoyen besoetatik gabiltzala; "su majestad", gora; "el augusto caudillo", bera; "la santa reina", aldebatera; "el egregio señor", bestera, eta orétan juan yaten astija, sei izlarioi. Gauf gizartiarl ardurarik geyen emoten dautsien arasuak atatu bez.

Itzaldi ondoren "requeté" taldiak euren egiñekua egoki asko bete eben. "Sois la esperanza de la Causa..." (pues está apañada la Causa), batek agua zabalduten ebala, ¡pun!. Bestiak estula egiten ebala, ¡pun! Ezagutu dituzu pistoleruok nortzuk diran. Gure batzokiari be erakutsi dautsie euren gorото zitala iru bertara jaurtiaz.

Etxagozak gaizki Borbon'dar aguriori begira dagozanak, baña ez dago asko obeto oneiri begira dagon aguria.

ALOÑA.

ISASONDO

SUKARIETA.—Aures iragari genduen bezela juan dan igandia uri onetako antzezlariak juan giñaden gure irakasle Sabin'en aragi eta ezurak autz biurtutzen ari diraden toki Deunera.

Burestun eder bat eraman genduen, eta Lauzirika'tar Kerman 7 urteko antzezlari trebeak, bati bañan geigori begiak bustieraziaz lore txorta eskeñi zion, itzaldi maitekora izan zan benetan, Kerman'en itzaldia, eta itzaldi ondoren otoitz egiñik, nun ikusten degun "Altzeta" aundia onek -ere itzegin zuan eta jakiña, "Altzeta,,'ren itzaldiak garatzak eta maitekorak dirade, eta ordukoa-ere oyetakoa izanduzan guztiz maitekora negar egin genduen, eta begiak legorturik an goatz Bermeo'rutz.

Eguardian iritxi giñan Bermeo'ra, eta ango alaitasuna ikusita aturik gelditu giñaden. Ango anaitasuna eta ango jendetza, ikusteak aditzera ematen digu Euzkadi'ren azkatasuna Iaxterka datorela.

Durango'tik barен aratsian etxeratu giñaden.

NEKAZARIAK.—Gauf aratsaldian 5'n Alzaga'n batzara dago Gipuzko Euzko -Nekazarien Bazunek eraturik. Gabiria'ko Muruak eta Mergara'ko Lete'k itzegingo dute.

Nekazariak, badakizute bada, gauf zozazte Alzaga'ra, nekazarien itza entzutera.

OKI-BELTZA.—Aureko egunian jaunaren besoetan bere bizitza utzi du Sarasola eta Peña'tar Miren Gurutzek, bere bizitzako 88 urtekin, uri onetako zarena auxen zan.

Beraren aldez egin diraden elizkizunetara oste aundia bilduzan, atsekabian laguntzen diogu bere sendiari eta otoitz ildakoen alde.

MURUMENDI

ONDARROA

BERMEO'RA. — Igazi dan igandian, Bermeo'ko batzokijaren askundia ospatute-egin ziran jai aberkoyetara, emendik abertzale asko bertaratu zan.

¡Axe zan Bermeo'ra juan biara!

Lau gurtarin andi eta ainbeste itxasontzi ostez beterik juan ziran. Baña, beste era batzutara be.

Gu bariz, lanak itxi ez euskulako, tamalez ba'dabe, etxian geratu gintzazan.

ARANTZUA.—Igazi dan astia arantzalientzat berebixikua ixan da.

Antxoba asko atzitu ixan dabe, baña, aldija aurera duanez, eztogu uste luzaroko ixango dabenik.

IDAZLIEN BATZARA.—Aureko astian "Argia,,'n Ariola'k iñuanez aurtengo euzkel idazlien batzara gure uri onetan egin biar litxake.

Gu, bazkun oretako bazkide be ez gaualako, eztaukagu zer agindurik.

Baña, atsegiñez ikusiko geunke emen berton ospatuko ba'litz. Ostera kezka batek artu gauz; ixentau daben eguna lasteř dalarik, batzar ori eralduteko astirik ixango ete dan.

AGIRE'RI OMENA.—Ila onen 29'gn, Kepa deunaren egunez, udalak eriko mota gustijetako bazkunen laguntasunagaz eralduta, omena egingo yako euzkel-idazle argi eta jaupari onoidetsuba ixan zan Agire'tar Domeka eritarari.

Oretarako ixentau zan batzordiak gogoz lana egiñaz egitarau eder bat gertutia lortu dau. Gu, baña, ez gara, beronen jaube egin eta ezin ipiñi.

OKERAK.

ZORNOTZA (AMOREBIETA)

Datoren egubenian, il onen 28'garenian gabeko o'tan ospatuko-da Euzko-Gastedija'ren aretoan neuriz-gañeko alderdikidiaren batzara.

Alderkide justijai dei-egiten yake batzar onetara eldu daitezan.

Uri-Buru-Batzara.

MENDATA

BERMEO'KO JAYAK. — Igazi dan igandian Bermeo'n ixan ziran jai ospetsubetara, emendik be notin asko juan gintzazan.

Gurdibil aundi bi bete abertzale juan gintzazan, ba, euzko-jai ospatsu aretara. Eta bai an itzaldi ederak eta sutsubak entzun, eta pozik jolastu be.

Eta eskerak gustijoi, oinguan abertzaletasuna ederto erakutsi dozubelako.

EGURALDIJA.—Aspaldijon bero aundijak egin ixan dauskuz. Eta beruok dirala-ta, bai lurak legortu be.

Baña aurtemin egin eban eurijaz, lurak apurtxu bat ezotu egin dira, eta lugin poz-ariñak poztuta imiñi.

JON DEUNA.—Jon deunaren eguna Ibaburi'ko Axuria auzuneko jayak dirala -ta, emengo gastiak egun oretan Axuria 'ra juateko ustian dagoz.

Ara juan eta jolas-aldi batzuk egin, eta Ibaburi-aldian abertzaletasuna zelan dabilan ikusi ganera.

"BEREJONDO'KO SUBIA,,'RI.—"Berejondo'ko Subia" orain aldi luzetxuba dala, Ereño-aldetik yabilku, beste bere lagun batzukin itzain juanda ibili be.

Eta lengo astelenian Gernika'ra ixandanian, ango ardanetxe baten alkaraz aurkitu gintzazan. Eta bertan, bere itzai-lagunari jazo yakana edestu euskun.

Itzai-lagun oneri, Latxiondo'tar Bigen deritxo. Eta Bingen'ak, kana bat eta amairu otzako suge aundi bat galdu ebala esan euskun. Eta urengo egunian, bariz, beste bat.

Oren beste suge dagozan lekuban ibiltia, mutil, arisku aundiko gauzea da, gero Kontuz ibili, ba, sugetzarok jan ezegijezan.

ERENOZTARTE